

JOHN DEE

Aingeruekin hitz egiten zuen zientzialaria

Egilea: Txemi Valdecantos
www.gaiak.net

2014/01/26

Zientzia, magia eta sinesmenak estu egon dira lotuak historian zehar. Natura ulertzeko saiakerak egiten joan diren heinean, esplikaezinak diren fenomenoek bestelako azalpena eman izan zaie beti, gehienetan botere nagusi eta ikusezinekin batuz gainera. Gizakiak inoiz ez du lege onez onartu jakin-minak eta jakintzak erritmo ezberdinak erabili ohi dituztela, eta batak besteari ezin dionean jarraitu, sineskeriaren amarruaz laguntzeko prestutasuna agertu du sarri. Uztartze hori, ordea, ezin da beti aurrerapenerako traba moduan ikusi: askotan, faltan zuten irudimena ekarri diete sinesmenek ikerlariei, unean uneko mugak gainditzeko bideak erraztuz.

Dee doktorearen kasua

Iraultza zientifikoaren garai betean jaio zen Londresen John Dee matematikaria, 1527an hain zuzen ere. Gaztetandik ikasle trebea, Cambridgen hezi zen, Trinity College entzutetsuaren lehen sortzaileen artean egonik. Aljebran aditua, kontinentean jarraitu zuen bere prestakuntza, Brusela, Anberes, Lovaina edo Parisen, besteak beste. Bere bidaietan zientzialari handiak ezagutu zituen, bai eta haien teoria berriak ere. Tycho Brahe edo Kopernikoren lanak aintzakotzat hartu zituen adibidez, lehenengoarekin harreman pertsonala ere mantendu zuelarik. Garaiko pertsonaiarik kultueneren artean egon zen, eta Mortlakeko bere etxean sortu zuen liburutegi izugarria, Ingalaterrako handiena izatera heldu zen eta ikerlari eta zientzialarien elkargune bilakatu zen XVI. mendearen bigarren erdian.

Bere jakintzaren erabilera politikoa

Mortlaken egonkortua, aljebra kontuez gainera bestelako lanetan hasi zen. Astronomia eta kartografia izan zituen ikasgai, adibidez. Cardano, Gemma Frisius edota Mercator astronomo eta geografo ospetsuekin lan egin zuen, bere liburutegia gizenduko zuen mapa bilduma aipagarri bat osatuz. Nabigaziorako eta neurketa astronomikorako tramankuluak ere jaso zein asmatu zituen. 1558. urtean, Elisabet I.a erregetzara iristean, bere albora deitu zuen astrologia eta zientzia kontseilaria izan zedin. Berehala jarri zuen bere ezagutza haren esanetara, eta Ingalaterrako domeinuak zabaltzeko bidean ezinbesteko ekarpena egin zuen. Bere eskutik hasi ziren taxuz prestatzen britainiar itsasgizonak, eta Ameriketara begira jarri ziren. *Britainiar Inperioaren* lehen aipamena Deeri berari egozten zaio. Walshingham eta Cecil ministroekin batera erreginarene espioitza sarea sortu eta hartan parte hartu zuen. Bere espioi kodea 007 zen, betaurreko batzuen irudia osatzen zuen sinboloa, berak

betetzen baitzuen erreginaren begien lana. Literatura eta zinemaren espioi modernoagoren baten aitzindaria izan zen, beraz.

Zientzia eta sinesmena nahasten

Deeren hermetismoarenganako zaletasuna espioitza kontu haietan lagungarri izango zitzaion ziur asko. Kriptografian aditua izan zen, eta bere mezuak zifratzen benetan trebea. Okultismoa ere bere interes nagusien artean egon zen beti. Ikasle garaitik hartu zuen azti fama. Horrek arazo larriak ekarri zizkion, eta Elizak epaitu egin zuen horoskopoak egiteagatik. Onik atera zen baina, eta temati jarraitu zion bere afizio arriskutsuak lantzeari. Alkimia zein Kabala ikasi zituen, eta historia eta mitologiaren interpretazio uztartua egiteko joera agertu zuen, betiere koroaren mesedetan. Ildo horretan, Ingalaterrak kontinente berriaren gainean ei zituen eskubideen bila, Kolon baino hiru mende lehenago Amerikara heldu zen Madog printze britainiarraren kondaira aldarrikatu zuen, Elisabet erreginaren nahiei men eginez.

Matematikak eta hermetismoa

Cornelius Agrippa de Nettesheim germaniarrak 1530ean plazaratutako *De Occulta Philosophia* liburuaren jarraitzaile sutsua bilakatu zen John Dee. Haren irudiko, matematikak ziren zientzia hermetiko guztien arteko lotura, eta ezinbestekoa zen matematikari ona izatea magia edo alkimia zuzen baliatu ahal izateko. Baita alderantziz ere. Horrela, Dee aztien maisu bihurtuz joan zen, eta era berean, gai ilunei buruzko liburu, tresna, talisman eta edonolako zinginarriren bildumagile egin zen.

1582an bizitza aldaraziko zion gertakari bat izan zen. Uriel izeneko aingerua agertu omen zitzaion parez pare, eta berarekin komunikatzeko balioko zitzaion gailu bat eman zion, harri beltz leundu bat hain zuzen. Kristalezko bola famatuen modukoa zen British Museumean ikusgai dagoen objektu hura. Esku-ispilu baten itxuradun bitxia, kultura aztekak sorturiko obsidianazko objektu errituala zen, ziurrenik mende hasieran Europara iritsitakoa. *Speculum* hartaz gainera, *Sigillum Aefimeth* egi jainkotiarraren zigilua edo *Tabula Sancta* mahai santua bezalako beste gailu magikoak egiteko argibideak ere luzatu omen zizkion Uriel eskuzabalak.

Orduantxe ere azaldu zen Edward Kelly xelebrea Deeren bizitzan. Iruzurgilea izateagatik belarriak moztuta zituen gizon bizi hori doktoarearen laguntzaile bihurtu zen harrezkero, eta biek batera Europa osoa zeharkatu zuten ekitaldi mistikoak burutuz. Medium saio haiek *Liber Mysteriorum* liburuan dokumentatu zituzten. Hainbat aingerurekin harremanetan jarrita, haien hizkuntza ulertzen zutela zioten, Enoch-en mintzaira alegia, eta hura zela gainera Adamek eta Evak Paradisuan hitz egiten zuten hasierako hizkuntza unibertsala. Bien arteko harremana bat-batean eten zen, Urielek Kellyri agindu bitxia egin ei zionean, bi lagunek emazteak elkartrukatu behar zituztela hain zuzen ere. Deek ez zuen hura inolaz onartu.

Amaiera

Mortlakera itzulita, hantxe eman zituen azken urteak. Erregina hiltzean, ondoren etorri zen Jakue I.ak ez zuen okultismoan aparteko interesik, eta Dee gortetik aldendu zuen betiko. Bakartuta eta 1604tik alargun, arazo ekonomikoak tarteko bere liburutegi baliotsua zatitu eta saldu beharrean egon zen, antikuario eta faltsutzaile andanaren pozerako. Aingeruen azken iragarpena Deeren beraren heriotzarena izan zen. 1608. urteko abenduan, Gabriel goiaingeruak berehala hiltzekoa zela adierazi omen zion, eta hilaren 22an zendu zen zientzialari-angelologoa, erabat akituta.